

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea hiri eta landa ondasun higiezin eta ezaugarri berezietako ondasunen zergaren 2019ko erroldak**

Landa eta hiri ondasun higiezin eta ezaugarri berezietako ondasunen gaineko zergaren 2019ko erroldak egin dira.

Hori horrela, hiri eta landa ondasun higiezin eta ezaugarri berezietako ondasunen gaineko zergaren Foru Arauak 21.2 artikuluan araututakoa betez, errolda hori 15 egun baliodunez egongo da jendaurrean, udal honetako idazkaritzan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, aztertu eta, hala badagokio, egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Dura, 2019ko maiatzaren 14a

*Alkatea*

*M<sup>a</sup> BLANCA ANTÉPARA URIBE*